



## BOTERE JUDIZIALEKO KONTSEILU NAGUSIAREN ETA HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENARI BURUZKO TXOSTENA

---

4/2020 LGZKZ - LT

### I.- AURREKARIAK

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Zerbitzu Orokorrek goian aipatutako hitzarmenari buruzko txostena eskatu du. Txosten-eskaerarekin batera, espedientean daude hitzarmenaren proposamena, HAEE Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuaren oroimena eta HAEEko zuzendariaren txosten ekonomikoa.

Oraingo gure legezkotasun txosten hau igortzen dugu jarraian adierazten diren artikuluetan xedatukoarekin bat etorritz:

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1 b) artikuluan.
- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 artikuluan.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) artikuluan
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 71/2017 Dekretuaren 14.1 a) artikuluan.

### II.- HITZARMENAREN AZTERKETA

#### A). Eskumenak



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1YG4-VPVJ bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>  
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1YG4-VPVJ en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoaren uztailaren 27ko 16/1983 Legearen laugarren artikulua araberara, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen urriaren 16ko 200/2012 Dekretuaren bigarren artikulua araberara, erakunde honek bere helburuen artean honako hauek ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko langileak prestatzea, eta gainerako euskal administrazio publikoekin lankidetzan jardutea, beren baitako langileak prestatzeko.
- Administrazio publikoen eta zuzenbide publikoaren funtzionamenduaren eta antolaketaren inguruan, ikerketak eta azterlanak egin, aholkularitza eman, dokumentazioa landu, informazioa zabaldu eta argitalpenak egiteko jarduerak aurrera eramatea eta bultzatzea, zerbitzu publikoa etengabe hobetu eta zerbitzu horren eraginkortasuna eta efizientzia areagotzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoak eta Euskadiko administrazio publikoek legeen, finantzen, ekonomiaren, gizartearen eta estatistikaren aldetik edo beste edozein arlotan dituzten berezitasunak ikertu, irakatsi eta ezagutzera emateko jarduerak aurrera eraman eta bultzatzea.
- Espainiako zein atzerriko antzeko beste erakunde batzuekiko truke-harremanak bideratu eta hitzarmenak egitea.

Bestalde, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 560.1.7 artikulua araberara Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari dagokio ebaztea epaile eta magistratuen prestakuntzaren eta hobekuntzaren inguruan. Horretarako, lege horren 433 bis artikuluaekin bat etorrita, hitzarmenak sinatu ahal ditu beste erakundeekin.

## **B) Hitzarmenaren oinarri juridikoa**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen VI kapituluaren hitzarmenak arautzen ditu. 47 artikulua araberara hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien menpeko organismo publikoek lotutako edo haien menpeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede

komun bat lortze aldera. Bestalde, 48 artikulua ezartzen ditu hitzarmen baliozkotasun eta efikazia baldintzak eta 49. artikulua, edukiari buruzkoak, hitzarmenak gutxienez jaso behar dituzten gaiak zehazten ditu.

#### **D) Hitzarmenaren edukia**

Hitzarmenaren azalpen zatian adierazten da zeintzuk diren sinatzen duten subjektuak eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikoarekin jarduten duen eta zer eskumenetan oinarritzen den jarduketak.

Lehenengo klausulak adierazten du hitzarmenaren xedea dela bi alderdien arteko garatu beharreko lankidetzaren esparrua ezartzea, bakoitzak bere eskumenen esparruan egiten diren jardueretan.

Bigarren klausulak azaltzen ditu alderdi bien konpromisoak. Horrela, adosten dute ziklo, ikastaro, mintegi eta mahai-inguruak antolatuko dituztela, bai ikerketaren arloan, bai prestakuntzaren arloan, karrera judizialeko kideei eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileei zuzenduta. Jarduera horien lehentasunezko eremua Europar Batasuneko Zuzenbidea aplikatzea izango da, baina etorkizunean beste lehentasunezko beste eremu batzuk ere sartu ahal izango dira.

Hirugarren klausulak, finantzaketari buruzkoak, adierazten du hitzarmenak ez diela gasturik eragingo alderdiei. Laugarren klausularen bidez Jarraipen-batzorde misto bat sortzeko konpromisoa hartzen dute sinatzaileek. Horrez gain, batzorde horren osaera ezartzen da, alderdi bakoitzeko 2 ordezkariarekin, eta batzordearen eginkizunak zehazten dira.

Bosgarren klausulak bi urteko indarraldia ezartzen du, sinatzen denetik zenbatzen hasita. Hala ere, beste lau urtez luzatzea aurreikusita dago, aldeek hala adostuta.

Seigarren klausula hitzarmena aldatzeari, suntsiarazteari eta azkentzeari buruzkoa da. Horren arabera, hitzarmena aldatu ahal izango da, alderdiek hala adosten badute, eta iraungi egingo da haren xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat gertatzen denean. Ildo horretan, hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak zehazten dira.

Zazpigarren eta zortzigarren klausulek datuen babesari eta konfidentzialtasunari egiten diote erreferentzia. Bederatzigarren klausulan hitzarmenaren araubide juridikoa ezartzen da, eta Jarraipenerako Batzorde Mistoaren bidez adostuta konpontzen ez diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jartzen dira.

### III. ONDORIOA

Hitzarmenaren xedea alderdi sinatzaile bien eskumen-esparru barruan dago eta biek interesa dute langileen prestatzearen gaietan lankidetzan jarduteaz. Halaber, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eskatutako baldintzak betetzen ditu hitzarmenak. Hori guztia dela eta, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen arteko hitzarmena legediarekin bat dator. Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.

Gasteizen, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita zazpian.